

ZORIONAK

Koldo Mitxelena BHIk

50 urte betetzeagatik

Honen bidez, LAU HAIZETARA elkarteak zorionik zintzoenak eman nahi dizkizue Koldo Mitxelena bigarren hezkuntzako institutuaren komunitate bizia osatzen duten irakasle, ikasle, guraso eta gainerakooi.

Pozez hartu dugu Institutuaren 50. urteurrenaren albistea. Izan ere, garai hartan arduradun instituzional eta herritar batzuek jakin zuten gure herriko gazteriak herrian bertan ikasteko zuen beharra antzematen, bai eta premia horri erantzuten ere.

Gure desioa da gaur egun ari diren eta etorkizunean etorriko diren gazteen belaunaldi berriek mundu aldakor hau ulertzen eta eraldatzen ikastea. Bai eta, zergatik ez, mundu honetan nabigatzearren gazte eleaniztun gisa euskara bihotzean eta hizkuntzen errepertorio pertsonalean eramaten ikastea ere.

Zorionak.

Errenteria, 2021eko azaroaren 9a

Lau Haizetara elkarteak



Koldo Mitxelena BHIk 50 urte

Doinua: "Habanera"

Frankismo garai latzean
iritsiz Oreretara,
orduko erdal giroan
hartu zuen abiada.
Konturatu gabe joan
zaizkigu bost hamarkada,
mende erdi oparoan
gertatutakoa hara:
izengabe sortu arren
gaur Koldo Mitxelena da.
Institutuan euskara
bermatua dago jada.
Premia genuen eta
orain zoriontsu gara,
"Etorkizuna ereiten"
zabaldu lau haizetara.

ZORIONAK

Errenteria, 2021eko azaroaren 8a

